

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Edozein proiektutan bezala, gurean ere badira aurrera egiteko ezinbestekoak diren hainbat elementu. Negozio ideia bat pentsatzean garrantzitsua da **errealistak** izatea eta ditugun baliabideez jabetu eta hauetan oinarrituz gure aukera eta mugak ezagutzea. Horrek ez du esan nahi hasi haurretik beharrezkoa dugun guztia jada eskura izan behar dugunik, baizik eta eskuratzeko gai izan gaitzkeen horiekin kontatzea, sinisten dugun horretan hain zuzen ere.

Gure negozio ideia zein izango zen erabakitzeke momentuan lehenik eta behin gure inguruko familien aisialdi aukeretan ikusten ditugun behar desberdinetan zentratu ginen. Ondoren, guk eskaini nahiko genituen aukera desberdinak planteatu genituen, aukera guztiak uztartzea posible ikusi eta hainbat helburu desberdin betetzen dituen proiektua sortuz.

Baliabide desberdinen artetik giza baliabideak nabarmenduko genituzke, izan ere, lan taldeak berebiziko garrantzia duela uste dugu, aurrez izandako esperientzia pertsonal desberdinetan oinarrituta argi dugu talde kohesioa eta guztiok helburu berdinarekin lan egitea ezinbestekoa dela.

Taldeko kide guztiok Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa ikasi dugun aldetik, badugu komunean dugun oinarritzko formakuntza bat; hala ere, bakoitzaren bestelako ikasketak, lan esperientziak edota bestelako bizipenengatik talde bezala heterogeneo eta aberatsa garela esan dezakegu. Hala ere, orain arte saiatu izan garen bezala, gure proiektuan zehar etengabeko formakuntzari berebiziko garrantzia ematen diogu motibazioa bizirik mantentzeko ezinbestekoa ikusten baitugu.

Alde ekonomikotik, aipatu bezala, hasiera batean oinarritzko material desberdinak edota beharrezko inbertsio txikiak egiteko bazkideetako bakoitzak kapital jakin bat jarriko bagenu ere, aurrerago udaletxe desberdinetatik bideratutako sarrera ekonomikoekin eramango genuke proiektua aurrera.

Gure funtsezko baliabideak honela banatuko genituzke:

Baliabide fisikoak	<ul style="list-style-type: none">● Kotxea● Herriko espazio desberdinak● Lokala
Baliabide intelektualak	<ul style="list-style-type: none">● HH-ko formakuntza● Hizkuntza desberdinak● Formakuntza osagarriak
Giza baliabideak	<ul style="list-style-type: none">● Hezitzaileak● Herri desberdinetako adituak (aliatuak)
Baliabide ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none">● Kapital soziala● Diru laguntzak